CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA

RIOJA ALAVESA
ARABAKO ERRIOXA

BILAR'ko UDALA
AYUNTAMIENTO de ELVILLAR

**Arabako Errioxako 2018ko Mahats-bilketaren Festa iragartzeko kartel-lehiaketarako deia egiten da:**

**OINARRIAK**

1.- Kartela edo haren kopia 30 x 70 zentimetrokoa izango da; beti ere moldiztegiko sistemen bidez erreprodukzioa egiteko behar den adinako bereizmenarekin. Bertikalean besterik ezingo da egin. Beheko aldean 6 x 30 (altuera x zabalera) zentimetroko tartea utziko da.

2.- Kartelean jaso beharreko testua honakoa da:

**"Arabako Errioxako Mahats-bilketaren 25. festa / 25ª Fiesta de la Vendimia de Rioja Alavesa**

**ELVILLAR/BILAR**

**2018ko irailaren 16a / 16 de Septiembre del 2018".**

3.- Lanak orijinalak eta aurrez argitaratu gabeak eta beste edozein lehiaketatan saritu gabeak izango dira.

4.- Orijinalak aurkezteko epea **2018ko maiatzaren 24an** amaituko da, 13:00etan. Postaz edo garraiobideren batez bidaltzen badira, lanak fakturatu direla egiaztatzen duen taloia aurkeztea lanak aurkeztea bezalaxe izango da. Dena dela, edozein arrazoirengatik, baita ezinbesteko kasua izanagatik ere, epaimahaia ebazpena emateko biltzen denean lanak oraindik jaso ez badira, lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Lanak eta gutunazal itxiak Kuadrillan bertan entregatuko dira, edo bertara bidali: Guardia – Arabako Errioxako Kuadrilla, Gasteizko errepidea, 2; 01300 Guardia (Araba / Álava).

5.- Sari honetan edozein pertsonak edo

**Se convoca concurso del cartel anunciador de la Fiesta de la Vendimia de Rioja Alavesa 2018 con arreglo a las siguientes:**

**B A S E S**

1.- El tamaño del cartel, o la reproducción del mismo, en su caso, deberá ajustarse a las medidas de 30 x 70 centímetros, con orientación vertical, manteniendo en todo caso la resolución suficiente para su reproducción por los sistemas correspondientes de imprenta. Se deberá dejar un faldón de 6 x 30 centímetros (altura x base) en la parte de abajo.

2.- El texto que deberá incluirse en él será:

**"25ª Fiesta de la Vendimia de Rioja Alavesa/ Arabako Errioxako Mahats-bilketaren 25. festa**

**ELVILLAR/BILAR**

**16 de Septiembre del 2018/ 2018ko irailaren 16a".**

3.- Los trabajos habrán de ser originales e inéditos y no haber sido premiados con anterioridad en ningún otro concurso.

4.- El plazo para la entrega de originales finalizará **el día 24 de Mayo del 2018,** a las 13:00 horas. Para los envíos por correo o transporte, la presentación del talón acreditativo de la facturación de los trabajos enviados equivaldrá a la entrega de éstos, bien entendido que, si por cualquier causa, aún de fuerza mayor, no se han recibido, cuando el jurado se reúna para emitir el fallo, se considerarán excluidos del concurso.

Tanto los trabajos como las plicas deberán ser entregados o remitidos a la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa sita en la Carretera de Vitoria, nº 2, 01300 Laguardia (Araba / Álava).

5.- Podrá concurrir a este premio cualquier

entitate juridikok parte hartu ahalko du, berdin dio zein hiritartasun duen edo egoitza non duen.

6.- Lanak izenpetu gabe aurkeztu beharko dira, euskarri zurrunez (10 mm-ko luma kartoian), eta atzealdean lema bat jarrita. Arauzko agirien gutunazal itxiaren barruan lema hori bera ipini beharko da, baita egilearen izena, bi abizen, nortasun agiriaren fotokopia, bizilekua, telefono zenbakia eta lana digitalean entregatu ere. Gutunazalaren kanpoaldean, berriz, lema eta zein lehiaketara aurkezten den adieraziko da.

Halaber, norberaren datuak dauzkan gutun-azalaren barruan, deialdi honetako 3. oinarria betetzen dela dioen zinpeko adierazpena sartuko da; hau da, lan hori orijinala, aurrez argitaratu gabea eta beste edozein lehiaketatan saritu gabea dela dioen zinpeko adierazpena.

7.- Artista bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu, bakoitza bere lemarekin.

8.- Saria, ondorengoa: 600,00 euro (dagokion atxikipena egingo zaio); Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideko ostatu batean gau bateko egonaldia Festako asteburuan: bi pertsonentzako egonaldia, gosaria eta upeltegira bisitaldia; Arabako Errioxako Upeltegien Elkartean (ABRA) dauden Bilarko upeltegien ardo lote bat; eta Festako egunean ardoa dastatzeko bi kopa.

9.- Kartel irabazlearen hautaketa bi fasetan egingo da. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak izendatuko du ebazpena emango duen epaimahaia eta bi epaimahaik osatuko dute. Bata diseinuko adituek osatuko dute eta lanen hautaketa egingo dute. Beste epaimahaiak aurretik hautatutako lanak baloratuko ditu eta irabazlea zein den esan; ebazpen hori dagokion gutunazala irekiz eta berehala jakinaraziko da. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahalko da.

persona o entidad jurídica, con independencia de su nacionalidad o lugar de residencia.

6.- Los trabajos, sin firmar, deberán ser presentados sobre un soporte rígido (cartón pluma 10 mm.), con un lema al dorso, que se repetirá en el interior de una plica cerrada que contenga el nombre, dos apellidos, fotocopia del D.N.I., domicilio y teléfono del autor así como en soporte digital. En el exterior de este sobre se consignará el lema y el concurso al que se presenta.

Asimismo deberán acompañarse dentro de la plica con los datos personales, declaración jurada de que se cumple la base 3ª de esta convocatoria, es decir, que se trata de un trabajo original e inédito y no premiado en otros concursos.

7.- Podrá presentarse al concurso el número de trabajos que cada artista desee bajo lemas diferentes.

8.- Se concederá un premio de 600,00 euros (sujeto a retenciones fiscales), una estancia de una noche para dos personas en régimen de alojamiento y desayuno y una visita a bodega el fin de semana de la Fiesta (en establecimientos de la Ruta del Vino de Rioja Alavesa), un lote de vino de bodegas de Elvillar pertenecientes a la Asociación de Bodegas de Rioja Alavesa y dos copas para degustar los vinos el día de la Fiesta.

9.- El proceso de selección del cartel ganador se realizará en dos fases. El jurado calificador, designado por la Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa, estará formado por dos jurados siendo uno de ellos compuesto por profesionales del diseño que son los que realizan la selección de los trabajos, el segundo jurado valorará estos trabajos seleccionados y será el que emitirá el correspondiente fallo que será dado a conocer mediante la apertura de la correspondiente plica. Este tribunal podrá

10.- Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da eta gehiengo soilaz hartuko da. Epaimahaiak ahalmena izango du

deliberazioan zehar sortutako gertakariei irtenbide emateko.

11.- Aurkezten den lan bakoitzeko jasoagiri bat emango da. Saritu gabeko lanak berreskuratzeko, jasoagiri hori aurkeztu beharko da. Lanak ezingo dira jaso 2018ko azaroaren 30a arte.

Nolanahi ere, epaimahaiaren erabakia hartu eta urte bat pasatuta, Kuadrillak obra berea egiteko eskubidea izango du; baita obra suntsitzekoa ere.

Lehiatzaileren batek nahi badu obra postaz edo garraioz itzultzea, garraio kostua berak ordaindu beharko du.

12.- Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillak beretzat gordetzen du aurkeztutako lanekin edo horien artetik hautaturikoekin jendaurreko erakusketa egiteko eskubidea, lema jarrita.

13.- Saritutako lana Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillarena izatera pasatuko da eta egingo diren jai ekitaldien argitalpenetan erabili ahal izango da.

14.- Lehiakideek, lehiaketan parte hartzearekin, lehiaketarako adierazten diren baldintza guztiak onartzen dituzte, eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

15.- Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillak bakarrik du deialdi honetan sor edo aurkez daitezkeen auzi guztiak ebazteko eskumena.

16.- Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen aurkeztutako lanek jasan ditzaketen kalteak, dela garraioan, hartzean, erabiltzean, erakustean edo itzultzean.

dejar el premio desierto.

10.- El fallo del jurado, que será inapelable, se adoptará por mayoría simple de sus miembros, quedando aquél facultado para la

resolución de cuantas incidencias pudieran surgir en el curso de las deliberaciones.

11.- Por cada obra presentada se expedirá un recibo, el cual deberá ser presentado al objeto de retirar los trabajos no premiados. No se podrán retirar los trabajos hasta el 30 de Noviembre de 2018.

No obstante, en todo caso, transcurrido un año de la fecha del fallo del concurso, la Cuadrilla se reserva el derecho de disponer de la obra, incluso de la destrucción de la misma.

Si algún concursante quisiera que la devolución de su obra se realizase mediante correo o transporte, esta será a portes debidos.

12.- Con los trabajos presentados, o una selección de los mismos, la Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa se reserva la facultad de su exposición pública con indicación del lema.

13.- El trabajo premiado pasará a ser propiedad de la Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa y podrá ser utilizado en la publicación de los diferentes actos festivos que se realicen.

14.- Los/as concursantes, por el hecho de tomar parte en este concurso, aceptan todas las condiciones que se especifican en el mismo y se someten expresamente a ellas.

15.- La resolución de todas las cuestiones que puedan surgir o plantearse en esta convocatoria es de exclusiva competencia de la Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa.

16.- La organización no se hace responsable de deterioros que pueda sufrir la obra durante el transporte, recepción,

17.- Gastu hau Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillaren Aurrekontuko 4311.226.006 partidaren kontura ordainduko da.

Lehiaketan parte hartzen dutenen datu pertsonalak isilpean tratatuko dira, 12. oinarrian adierazitako salbuespenarekin; eta Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillaren jabetzakoak diren fitxategietan jasoko dira Gasteizko errepidea, 2, Guardia, (Araba / Álava) helbidean, Arabako Errioxako 2018ko Mahats-bilketaren Festa iragartzeko kartelaren lehiaketa kudeatzeko. Parte-hartzaileek Datu Pertsonalen Babeserako Legeak espresuki aitortzen dituen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta auka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu, NANaren fotokopiarekin batera eskaera idatzi eta izenpetua helbide honetara bidaliz: Gasteizko errepidea, 2, 01300 Guardia (Araba).
Parte hartzaileak onartzen du Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak bere datu pertsonalak tratatzea, soilik aipatutako helburuarekin.

**Guardia, 2018ko martxoren 25a**

manipulación, exposición y devolución de la obra presentada.

17.- La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 4311.226.006 del Presupuesto de la Cuadrilla de Laguardia – Rioja Alavesa.

Los datos personales de los concursantes serán tratados confidencialmente, con la excepción de lo señalado en el punto 12, y se incluyen en los ficheros propiedad de la Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa con domicilio en Laguardia, Carretera Vitoria, nº 2, Laguardia (Araba / Álava), para su tratamiento con la finalidad de gestionar el concurso del cartel anunciador de la Fiesta de la Vendimia de Rioja Alavesa 2018. Los concursantes podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición que expresamente reconoce la L.O.P.D. mediante solicitud escrita y firmada y adjuntando copia del DNI en la siguiente dirección: Carretera Vitoria, nº 2, 01300 Laguardia (Alava).
El participante acepta que la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa trate sus datos personales únicamente con el fin al que se presentan.

**Laguardia, 25 de Marzo del 2018**